# Xedapen Orokorrak

## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

### Zk-940

25/1997 DEKRETUA, otsailaren 11koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren egitura organikoa ezartzen duen Dekretua aldatzeko dena.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren ezarpenak eta hezkuntza-sistemaren eraberritze globalean aurrera egin beharrak derrigorrezko egiten dute abenduaren 12ko 510/1995 Dekretuan ezarritako egitura organikoa aldatzea, Hezkuntza Sailordetzaren funtzio eta eskumenetan –bereziki, unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzen alorreko hezkuntza-plantilaren definizioan zehaztutakoan– eraginkortasun handiagoa lortzearren. Izan ere, hezkuntzaren eraberrikuntzaren diseinua eta ezarpenaz gain, horrek curriculumean, irakasleen prestakuntzan, hezkuntzako behar berezietan eta abarretan duen eragina jaso behar baita.

Ondorioz, hezkuntzaren eraberrikuntzak irakaskuntzako funtzio publikoan duen eraginari erreparatuz, beharrezkoa da Langileriaren Kudeaketa Zuzendaritza Hezkuntza Sailordetzaren barruan sartzea eta, horretarako, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren egitura organikoa aldatu egin behar da.

Ondorioz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren proposamenez, Lehendakaritzak onartu ondoren eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 1997ko otsailaren 11n gaia aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

*Lehenengo atala.*– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren egitura organikoa ezartzeko abenduaren 12an emandako 510/1995 Dekretuaren 2. ataleko a) idazatiaren 3. eta 4. puntuak aldatzea. Hauxe izango da horien idazkuntza:

«3.– Hezkuntza Administraziorako Sailordetza.

3.1.– Hezkuntza Administrazioko eta Aurrekontuetako Zuzendaritza.

4.– Hezkuntza Sailordetza.

4.1.– Pedagogi Berrikuntzarako Zuzendaritza.

4.2.– Ikastetxeen Zuzendaritza.

4.3.– Lanbide Heziketako Zuzendaritza.

4.4.– Langileriaren Kudeaketa Zuzendaritza».

*Bigarren atala.*– 510/1995 Dekretuaren 10. ataleko 1. idazatiko g) puntua aldatzea. Hauxe izango da horren idazkuntza:

«g) Euskal Hezkuntza Sistemaren ekonomi eta administrazio kudeaketa zuzenduko du».

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

### N°-940

DECRETO 25/1997, de 11 de febrero, de modificación del Decreto por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

La implantación de la Enseñanza Secundaria Obligatoria, así como la necesidad de avanzar en la reforma global del sistema educativo, obliga a modificar la estructura orgánica que el Decreto 510/1995, de 12 de diciembre, estableció, a los efectos de buscar una mayor eficacia en las funciones y en las competencias que desempeña la Viceconsejería de Educación y en concreto aquélla determinada en la definición de la plantilla educativa en el ámbito de las enseñanzas no universitarias, con inclusión del diseño e implantación de la Reforma Educativa y su incidencia en el desarrollo curricular, la formación del profesorado, las necesidades educativas especiales, etc.

Para ello, y debido a la incidencia que la reforma educativa tiene en la función pública docente se hace necesaria la ubicación de la Dirección de Gestión de Personal dentro de la Viceconsejería de Educación, y, en consecuencia la modificación de la estructura general del Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, previa aprobación de la Presidencia y deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno, en su reunión del día 11 de febrero de 1997

DISPONGO:

*Artículo primero.*– Se modifican los puntos 3 y 4 del apartado a) del artículo 2 del Decreto 510/1995, de 12 de diciembre, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Educación, Universidades e Investigación, quedando redactados como sigue:

«3.– Viceconsejería de Administración Educativa.

3.1.– Dirección de Presupuestos y Administración Educativa.

4.– Viceconsejería de Educación.

4.1.– Dirección de Renovación Pedagógica.

4.2.– Dirección de Centros Escolares.

4.3.– Dirección de Formación Profesional.

4.4.– Dirección de Gestión de Personal».

*Artículo segundo.*– Se modifica el punto g) del apartado 1 del artículo 10 del Decreto 510/1995, quedando redactado como sigue:

«g) La dirección de la gestión económico-administrativa del Sistema Educativo Vasco».

*Hirugarren atala.*– 510/1995 Dekretuaren 13. atalеko 1. idazatian i) puntu berria sartzea. Hauxe izango da horren idazkuntza:

«i) Euskal Hezkuntza Sistemaren giza-baliabideen zuzendaritzaz arduratuko da.

AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean Dekretu hau.

Vitoria-Gasteizen, 1997ko otsailaren 11n.

Lehendakaria,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,
INAXIO OLIVERI ALBISU.

*Artículo tercero.*– Se introduce un punto i) en el apartado 1 del artículo 13 del Decreto 510/1995, con la siguiente redacción:

i) La dirección de los recursos humanos del Sistema Educativo Vasco.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 11 de febrero de 1997.

El Lehendakari,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Educación, Universidades e Investigación,
INAXIO OLIVERI ALBISU.

## KULTURA SAILA

### Zk-941

16/1997 DEKRETUA, otsailaren 4koa. Honen bidez, Euskadiko «Gazte-Txartela/Carnet joven» eratu eta arautzeko Dekretua moldatzen da.

Maiatzaren 2ko 260/1995 Dekretuaren bidez, Eusko Jaurlaritzak Gazte-Txartela zerbitzua jarri zuen martxan, gazteentzako interesgarri eta lagungarri diren zerbitzuak eta ondasun kultural zein materialak eskuragarriago egon daitezen eurentzat. Gazteei erraztasunak eta aukerak ematea da, beraz, helburua, era horretara, alor kultural eta sozialean izan ditzaketen beharrizanak asetzeko aukera handiagoak izanda, euskal gazteen bizimodua hobea eta erosoagoa izan dadin.

Egitarau hau garatzerakoan izandako esperientzian oinarrituta eta euskal gazteriak egun lan-munduan, ekonomian, gizartean eta Europako egoera berrian bizi duen errealitatea aintzat izanik, aipatutako txartelak bere helburuak bete ditzan on litzateke orain indarrean dagoen araudia moldatzea. Era horretara, kudeaketa administratiboa hobeto bideratuko da eta euskal gazteriaren eskaera eta beharrizanei erantzun egokiagoa emango diegu kontestu europarrean.

Ildo horretatik, on litzateke txartela erabil dezaketen onuradunen adin-tartea zabaldu eta gaur eguneko errealitateari egokitzea. Era horretara, eskainitako trataera guztientzako berdintsuagoa eta hobea izanda, gazte gehiagok izango du hainbat zerbitzutara iristeko aukera.

Era berean, egitaraua hobeto eta zentzun handiagoz kudeatu, kontrolatu eta jarraitzeko, egoki litzateke, bi urteko indarraldia errespetatuta, epearen amaiera atzeratu eta erabateko bukaera hurrengo jardunaldiko urtarrilaren 31n ezartzea.

## DEPARTAMENTO DE CULTURA

### N°-941

DECRETO 16/1997, de 4 de febrero, de modificación del Decreto de creación y regulación del «Gazte-Txartela/Carnet joven» de Euskadi.

Mediante Decreto 260/1995, de 2 de mayo, se estableció por el Gobierno Vasco el servicio de Gazte-Txartela con el fin de facilitar y posibilitar el acceso de los jóvenes a la plena utilización de los bienes culturales, materiales y servicios que pudieran revestir interés para su propio desarrollo, contribuyendo de esta forma a la mejora de las condiciones de vida del/la joven vasco/al ampliar la posibilidad de satisfacer las necesidades que se le susciten en el terreno cultural y social.

La experiencia acumulada en el desarrollo del programa y la nueva realidad europea, sociológica, laboral y económica en el que la juventud vasca se halla inmersa aconsejan, para que el citado carnet alcance los objetivos señalados, una modificación de la regulación vigente en aras a posibilitar su mejor gestión administrativa así como una mayor adecuación y respuesta dentro del contexto europeo a la demanda y necesidades del colectivo juvenil vasco.

En tal sentido procede adecuar la edad de los potenciales beneficiarios de dicho carnet a la realidad vigente, favoreciendo, así, un mejor y más igualitario tratamiento de los mismos ante la prestación de determinados servicios.

Asimismo y con el fin de facilitar una gestión, control y seguimiento más racional del programa, procede atendiendo a su bianualidad, posponer la fecha de conclusión del mismo al 31 de enero del ejercicio siguiente.